ttipi ttapa

306

2001eko uztailak 12 • XXI. urtea



## Bengoetxea V.ak debuta egin du

28

Leitzan ekainaren 17an egin zuen debuta atzelari leitzarrak. Familian txapeldun handiak ditu, baina *«nik nere bidea egin behar dut»* dio Juan Mariren semeak.



## Uztailaren 16an itxiko dute Belate

21

Hamar astez, uztailaren lehendabiziko astea bitartean, itxiak egonen dira Belate eta Almandozko tunelak. Gobernuak dioenez, *«betirako moldaketa izanen da»*.

# 3 Adinekoei omenaldia



# MUEBLES AMETS

**Sarrera BERAtik da**

*Alkaiagako industrialdean*

*Sastrin karrika, 3.2 - 3.4*

**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537*

*Fax. 948 631 443*

*Larunbat arratsaldetan irekia*






**4.000 m²ko erakusketa mobleak ikusteko**





**Sukaldeak**

**Egongelak**

**Logelak**

**Bainugelak**

# 85 urte eta Urrezko Ezteiak bete dituztenei omenaldi berezia

**• Urrezko Ezteiak eta 85 urte aurten beteko dituztenak, omendu berri dituzte Doneztebeko Elizan. Oroigarriak hartu ondotik, Arkupeak Elkarteko bertze 800 kideekin batera, Bordatxo dantzalekuan bazkaldu zuten. Bazkalondoan gustora aritu ziren denak dantzan.**

**• Omenaldiko hitzaldian, Felipe Ganboa presidenteak jakinarazi zuen Arkupeak Elkarteak Doneztebeko Don Pantxoneaetxea erostekotan dela, eta horretarako, sarrera emana zuela. Etxe horretan xaharren egoitza prestatu nahi lukete. Bistan denez, proiektu hau begi onez hartu dute denek.**



Rakel Goñi

Arkupeakelkarteko 800 kide baino gehiago bildu ziren ekainaren 28an Donezteben. 2001ean 28 kidek 85 urte eta 10 bikotek 50 urte ezkonduta beteko dituzte, eta hau ospatzeko, egun berezia antolatu zuen Arkupeak elkarteak. (Ondoko orrialdean dituzue guztien izenak eta argazkiak).

Besta eguna Doneztebeko elizan hasi zuten Jesus Goldaraz apezak eman zuen mezarekin. Gero, bestaren oroigarriak banatu zituzten. Bi orduetan denak Bordatxo dantzalekuan bildu ziren bazkaltzera. Urtero bezala Argetasko Moderno jatetxekoek ekarri zuten bazkaria. Fritoak, langostinoak, legatza, umerria entsaladarekin, tarta eta izozkiak jan ziuzten.

Bazkalondoan dantzatzeko denbora izan zuten erretiratuek Amalur taldearekin. Urtero bezala arkupeak elkarteak bere aldizkaria banatu zuen kiden artean.

**Zahar etxearen proiektua**

Felipe Ganboa presidenteak Donezteben zahar etxe bat egiteko proiektua dagoela jakinarazi zuen. Farmaziaren gibelean dagoen Don Pantxonea erosteko fidantza jarri dute dagoenekoz, eta orain, Nafarroako Gobernuarekin tratuan ari dira finantziazioa lortzeko. Helburua etxea konpondu eta inguruko jubilatuendako egoitza egitea da. Mende hasierako etxe hau Donostiako bikote baten udako egoitza izana da. 1941ean Cesareo Crespo Orokietak erosi eta bere semeei pasatu zien.

Bertzalde, Arkupeak elkarteak Espainiako erretiratuen elkarte batzurekin hartuemanak gurutzatu nahi ditu, harremanak sendotzeko asmoarekin.

**Mariano Izeta gogoan izan zuten**

Nagusiki besta giroan ibili baziren ere, urte honetan zendu diren kideak gogoratzeko astia izan zuten. Bertzeren artean Mariano Izeta baztandarraren aipamen berezia egin zen elkartearengatik egindako lana eskertuz.

**15. urteurrena**

15 urte bete dira jadanik Arkupeak elkartea sortu zenetik. Kideen kopurua handituz joan da kultur eta kirol eskeintzekin batera. Erreferentzia bihurtua da Arkupeak elkartea gure adinekoen eguneroko bizitzan. Lana gogotik eginez, emaitza ezin hobeak izan dituzte. Zorionak eta aunitz urtez!

**Doneztebeko Don Pantxonea erosteko fidantza emana du dagoenekoz Arkupeak Elkarteak. Xaharren egoitza egin nahi dute etxe horretan**

# Urrezko Ezteiak

• Arkupeak elkarteak Urrezko Ezteiak (50 urte ezkondurik) eta 85 urte aurten bete dituzten bazkideei omenaldi berezia eskaini die. Besta borobiltzeko, Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan bazkari jendetsuan bildu ziren.

• 10 bikotek bete edo beteko dituzte aurten Urrezko Ezteiak. Egun berezi heri gogoan atxikitzeko, opari eta oroigarriak hartu zituzten omenaldian.

• 85 urtetara ailegatzea gauza ederra da. Bada urte gehiago bete duenik ere, bistan da, bainan horiek jada hartua dute omenaldia. Dena den, aurtengoan 39 dira omendutakoak.

• Denei, zorionak eta aunitz urtez.


Migel Zubieta- Josefa Azkona (Arraioz)


Manolo Sanz - Juana Ganboa (Bera)


Fernando Midegia - Rosa Lopez (Donamaria)


Francisco Oiarzabal - Cristina Telletxea (Doneztebe)


Miguel Lezaun - MªJosefa Iturralde (Elizondo)


Joaquin Goienetxe - MªTeresa Aruztegi (Etxalar)


Jose Ziganda - Mikaela Etxekolanea (Irun)


Justo Berastegi - MªJesus Sagastibeltza (Leitza)


Francisco Arretxea - Marcelina Elizalde (Ziga)


Luis Mutuberria - Mikaela Saizieta (Zubieta)

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Navarra. 01eko ekainaren 28a

*«Nire bizitzaren urte asko eskeini dizkiot aizkorari eta oraindikan sasoi onean nago, baina ez litzaidake gustatuko plazatan arrastaka bukatzea. Horregatik, txapelketetatik erretiratzea erabaki dut, oraindikan erakustaldietan parte hartuko badut ere».*

*«Batzuen ustez ez du merezi horrenbeste sufritzea, esate baterako futbolistek irabazten duten dirutza ikusita. Aizkolariok ez dugu kasik dirurik irabazten eta sufrimendua handiagoa da».*

Mikel MINDEGIA
Zubietako aizkolaria
D. Navarra 01-06-25

*«Uztea erabakitzen badut betirako izanen da eta zer da politagoa gure lanbidean, 27 urtez aritu ondotik –uztailaren 14an beteko baititut– txuriz jantzita agurtzea baino? Gero hitzegingo da omenaldiaz, baden edo ez den».*

*«San Mateoak bitarte allegatzea gustatuko litzaidake eta frontoi handietako azken partidua han jokatu. Belaunak oso gaizki ditut eta medikuek berehala uzteko esan didate».*

Julian RETEGI
Eratsungo pilotaria
*Gara 01-07-03*

## • 11 GALDERA LABUR •



**Eva MARTIN IBARRA** *Elgorriagako gaztea*

- **Urte aunitz egin dituzu zaldiekin lanean. Pena eman dizu uztea?**
  Bai. Kariño handia hartzen diezu eta gainera, hori da nire lanbidea.
- **Zer erakutsi dizute zaldiek?**
  Pazientzia erabiltzera, pazientziarekin edozein lekura allegatzen zarela.
- **Gizakia edo zaldikoa?**
  Biek, egoeraren arabera.
- **Zer da turistek Elgorriagan gehien maite dutena?**
  Paisaiarekin harrituak gelditzen dira.
- **Bainuetxeak zer ekarriko du Elgorriagara?**
  Lanpostuak sortzea espero dut eta herria pixko bat piztea.
- **Izan zara noizbait bainerio batean?**
  Ez dut behin ere probatu. Jende helduarendako aproposagoa dela iruditzen zait.
- **Burdin lanean ere aritzen zara. Zer duzu gustokoena?**
  Oraindik ez dakit eta formak ematen ikastea gustatuko litzaidake.
- **Arotz lanetara dedikatzea pentsatua duzu?**
  Bertze asmoak ditut, baina langabezian nagoenean laguntzera etortzen naiz.
- **Ezberdintasunik bada gizon eta emakumeen burdin lanen artean?**
  Bai, anaiek sendoagoa egiten dute eta amak, berriz, finagoa.
- **Bestetan gehien gustatzen zaizun ekitaldia?**
  Mus txapelketan parte hartzea gustatzen zait... gaua ongi joan bada.
- **Dirua izanez gero, zer ekarriko zenuke bestetara?**
  Txaranga haundi bat egunero.













BORTZIRIAK

# Euskara Bortzirietako hizkuntza dela erranez adierazpena sinatu dute gizarte eragileek

180 lagun bildu ziren uztailaren 5eko ekitaldian Beran

tipi-ttapa

Bortzirietako gizarte sektore eta lanbide ezberdinetako 180 lagunek sinatu dute euskara Bortzietako hizkuntza dela aldarrikatuz idatzi den adierazpena. Udalek, administrazioko ordezkariek, enpresari eta sindikatuek, kirol, kultur eta bertzelako elkarteek, ikastetxeek eta euskalgintzako hainbat taldek sinatutako idatzi horretan, euskararen egoerarekin kezka azaldu da. Beraien ustez, Nafarroako Gobernuak urte hasieran onartutako dekretua onartezina da: *«Gure hizkuntza modu larrik mingarmenean erasotzeko neurriak abian jarri ditu, inola ere kontuan hartu gabe herritarrek ikerketa soziolinguistiko, sinadura bilketa, manifestazio eta bertzelako agerraldien bitartez aldiro-aldiro euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren aldeko jarrera agertu dutela».*




TIPI-TTAPA TB

**Euskararen aldeko adierazpena sinatu zuten Bortzirietako gizarte eragileek uztailaren 5ean bildu ziren Beran. Nafarroako Gobernuak hizkuntza honekin duen jarrera ere salatu zuten.**

Aderazpenak dioenez, lortutako gauza bakanak ere zapuztu nahi ditu Nafarroako Gobernuak. *«Gure herrietatik hainbertze aldiz eskatu dugu bertako mediku eta erizain berriak euskaldunak izatea eta zenbait neurri lortuak genituen baina berriki, horiek ere hankaz goiti bota ditu Gobernuak. Gure herrietan euskara ofiziala da eta horretaz, mediku, erizain eta administrazioko langile guztiekin euskaraz aritzeko dugun eskubidea bete dezan eskatu nahi diogu Gobernuari».*

### IRAKASKUNTZAN EUSKARA MURRIZTEKO DEKRETUA

Idatziaren arabera, azken 25 urteotan euskarak izan dituen aitzinera pausu garrantzitsuenak irakaskuntzari esker lortu dira, baina *«irakaskuntzan ereeuskarazko irakaskuntza murrizteko, oztopatzeko eta zenbait tokitan, galarazteko ere dekretu berria prestatzen ari dira, bertzeak bertze, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza amu erakargarri gisa paratuz. Horrekin aski ez eta unibertsitate publikoan ere euskaraz zerbait ikastea ezinezkoa izatea lortu nahi dute. Berriz ere errepikatuko dugu Bortzirietan euskarazko irakaskuntza nahi dugula, gaztelaniaren eta atzerriko hizkuntzen irakaskuntzari uko egin gabe».*

Iriarte-Echandi, S.L.
• Aholkularitza
• Artekaritza
• Aseguruak
Kantonberri 1 • BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

bortzIRUDI
BERA
FOTOKOPIAK
ENKUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA E-MAILA
SKANNERRA
PAPERTEGIA
ARGAZKI MUNTAIAK
DISEINU GRAFIKOA
IMPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
Eztegara 26 behea
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763

ZUBIONDO JATETXEA
Alzata karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41. Tfnoa: 948 630 699 - BERA

BERA

# Auzo-bileren balorazio ona egin du Udalak, jende gutti izan den arren

## Obra publikoetan 225 milioi pezeta gastatuko ditu aurten Udalak

Asier GOGORTZA

Herritarren iritziak biltzeko egindako bilerak arrakastatsuak izan direla adierazi digute Udaleko ordezkariek. Balorazio positiboa egiten dute bizilagunek hainbat kexa eta proposamen atera dituztelako mahai gainerat, horietako zenbait Udalak ezagutzen ez zituenak. Dena den ez omen da jende aunitz agertu bilera horietara, beharbada Udala eta herritarren artean dagoen harreman eskasagatik edo bertzerik gabe ohitura faltagatik.

### 2001eko aurrekontua

Aurten ia 700 milioiko aurrekontua du Berako Udalak, eta gasturik gehienak obra publiko eta hirigintzan eginen ditu. Matzada auzoko urbanizazioa aurten eginen da eta 95 milioi gastatuko dira. Zia auzoko ur hornidura ere eginen da, Toki Ona eta Xubixabaleko parkeak moldatu (4 milioi), Zalaingo frontoia egin (10 milioi), Ilekuetara sartzeko zubia ere moldatuko da (10 milioi) eta ezinduentzat oztopo fisiko zenbait kentzekoa asmoa dago (4 milioi). Kirolen sailean, berriz, frontoia moldatzeko 13 milioi gorde dira eta kiroldegiko teilatua egiteko 26. Piszinetan, bertzalde, 26 milioiko gastuak eginen dira obretan. Aurrekontu osoaren %32,5a gastatuko da hirigintza eta obra publikoetan, biztanleko 64.448 pezeta hain zuzen ere.



Asier

Frontoia moldatzeko 13 milioi pezetako aurrekontua dago.

## Erakusketa

### Maxus Lopez margolariaren erakusketa Kultur Etxean

Maxus Lopez margolari irundarraren margoak zintzilik daude Berako Kultur Etxeko paretetan. Uztailaren 15a arte egonen da zabalik erakusketa, goizeko 10etatik eguerdiko 2etara eta arratsaldean 4etatik 7etara. Igande arratsaldez eta astelehen goizez itxirik egonen da.

Hemen inguruko paisaiak egonen dira ikusgai: Zalain auzoa, San Miguel zubia...



## FLASH

### Argazki zaharrak

Berako bestetarako, urtero bezala, koadernotxo bat argitaratuko da TTIPI-TTAPArekin batera. Bertan etxean gordeak izaten ditugun argazki zahar hoietarik zenbait atera nahi genituzke. Gustoko bakarren bat baldin baduzu eskertuko genizuke Herriko Etxean dugun bulegotik bueltaxka bat ematea.

### Alkaiagako bestak uztailaren 29an

Aurtengoan Santiago eguna ez denez besta eguna, Alkaiagako bestak igandera, uztailaren 29ra gibeleratzea erabaki dute. Goizeko 11etan Meza izanen da eta 2etan bazkaria, Irats taldearen animazioarekin. Bazkalondoan, dantza txapelketa izanen da eta gero, Bortzirietako bertso eskolako bertsolarien emanaldia. Arratsaldeko 7,30etan, Gure Txokoako dantza taldearen emanaldia izanen da. Besta eguna akautzeko, gaueko hamarrak arte dantzaldia izanen da Irats taldearekin.

### Koxkor biltzen Nafarroako marka berria

Fernando Etxegarai beratarrak, Nafarroako errekor berri bat egin du koxkor biltzen. Lehendik ere berak zuen marka, baina Erratzun bi segundu hobetu zuen (6'20" 15 zentesima).

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

JAIME-GOZOTEGIA
Altzate, 10 • 948630786 • BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

BAR BOTXO OSTATUA

LESAKA

# Kultur Etxea egiteko 136 milioiko dirulaguntza jaso du Udalak

Nafarroako Gobernuak proiektuaren erdia ordainduko du

Aitor AROTZENA

Lesakan Udal Kultur Etxea egiteko dirulaguntza ematea erabaki is Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamenduak. Zinazki, 136.057.859 pezeta jasoko ditu Udalak hunetik, proiektua ...tzeko eta lanak egi...ko aurkeztutako au...rrekontuaren erdia, hain zuzen 272.115.717 aurrekontua duen aurreproiektuaren arabera. ...meldarren komentu ...zaharraren ondoan Kultur Etxea eta liburutegia eginen dira. Honetaz gain, komentuko eli...zan zentro zibikoa egin ...ahi da. Aspaldian Kultur Etxea eskatzen zuten taldeentzat berri ona da hau.



Arroa

**Bertze urte batez, Irain eskolako ikasleek Teleskola saioa eskaini zuten ikasturtea akautzeko. Telebista programa osoa osatu eta eskaini zuten, aurkezle, elkarrizketa, kamara, errealizatzaile eta beharrezko kontu guziekin, urtean egindako bidaietan grabatutako bideoak erakutsi bidenabarkoan. Ondoko gelan guraso eta bertze ikasleek zuzenean ikusi zuten saioa.**

## San Fermin jubilatu elkartea

### *Orreagara bidaia eta Andra Mari Zahar Etxera bisita eginen dute*

Herriko bestetako Ezkonduen Eguneko Nafarroako Joten jaialdia ...atu ondotik, bertze ...daldak prestatzen hasiak dira San Fermin jubilatu elkartekoak. Uztailaren 27an Orreagara joateko asmoa dute. ...zeko 8etan abiatuko dira plazatik. Dantxarinean hameketakoa eginen dute. Donibane Garazi bisitatu eta Aurizberriko (Espinal) Urrobiko kanpinean bazkalduko dute, honako menu honekin: Entsalada, barazki menestra, piper beteak, bildots saiheskiak plantxan eta postrea (ogia, ura, ardoa, kafea eta kopa barne). Bazkalondotik, Orreagako kolegiata eta gazta fabrika bisitatuko dituzte. Txartelak 2.500 pezetatan salgai daude elkartearen ostatuan eta uztailaren 23a baino lehen erosi behar dira.

Bertzalde, uztailaren 29an, arratsaldeko 4etan, Andra Mari Zahar-Etxeko lagunei bisita eginen diete San Fermin elkarteko kideek. Bazkide guziak gonbidatuak daude eta erresidentzian daudenekin batera, txokolate jatea eginen dute. San Fermin elkartetik jendea animatzeko deia egin dute, bisitak aunitz eskertzen baitituzte erresidentziakoek.

## FLASH

### *Interes kulturaleko ondasun*

izendatu ditu Nafarroako Gobernuak San Martin Elizan dauden bortz erretaulak: erretaula nagusia, Santa Catalina erretaula, Arrosarioko Amabirjinaren erretaula, Bakardadeko Amabirjinaren erretaula eta Gurutz-iltzatuaren erretaula. XVIII. mendeko gorteko rococó estiloan egin zituen Luis Salvador Carmonak erretaula gehienak.

### *Paleta-goma eta pala motzeko finalak*

Arkupe elkarteak antolatutako emakumezkoen paleta-goma eta gizasemeen pala motza txapelketako sari nagusiak Gipuzkoaldera joan dira. Ekainaren 30ean jokatu ziren finalak udal pilotalekuan. Mutiletan, Navarro eta Amianok 40-29 irabazi zieten Berasategi eta Aizpuruari. Nesketan, Altzako Edurne eta Ainhoak 35-24 irabazi zieten Estitxu eta Edurne baztandarrei.

### *Trikitixa txapelketa*

Estitxu Elgorriaga eta Nekane Etxandi lesakarrek irabazi zuten uztailaren 1ean Baztan, Malerreka eta Bidasoaldeko IV. Trikitixa txapelketa, 30.000 pezetako saria lortuz. Gibelean Gipuzkoako bi bikote utzi zituzten. Plazan jende aunitz bildu zen saioa aditzera.

Loreak eta landareak
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

ANA
Bittiria 41 • 948 637519 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948627573 • LESAKA

kixkur
ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

ETXALAR

# Etxandi eta Elgorriaga II. Trikitixa Txapelketaren irabazleak

## Denbora luzearen ondotik, martxan daude Kultur Etxearen lanak

**Joseba eta Nerea**

Nekane Etxandi eta Estitxu Elgorriaga lesakarrak suertatu ziren Lesakako Trikitixa eskolak antolatzen duen txapelketaren irabazleak. Ekainaren 23an, egin zen Etxalarko II. trikitixa txapelketa. Plaza jendez beterik zegoela, 7 bikotek hartu zuten parte eta bakoitzak lau pieza eskaini zituen Ritxar Cuevas eta Iñaki Mundiñanok osatutako epaimahaiaren antzinean. Bortzirietatik, Malerrekatik, nahiz Gipuzkoatik etorritako trikitilari gazteek maila ona erakutsi zuten, txapeldunek adierazitako moduan: *«aurtengoan iaz baino maila altuagoa egon da. Kanpotik hagitz ongi prestatutako bikoteak etorri dira eta ez genuen txapela espero»*.



Joseba OLAGARAI

**Mikeltxo Lekuona 17 urteko etxalartak gazteak argazkian ageri den 62 zentimetro eta 2,215 kiloko amurrain ederra arrantzatu zuen, Tximista errekan, ermita parean, hartutako pieza Etxalarren inoiz ateri den amurrainik handiena da. Zorionak Mikeltxo!**

Nekane eta Estitxuren ondotik Ataungo Maitane Aiertza eta Aiora Urdangarin eta Leire Zumeta anoetarra eta Amaia Artza añorgarra sailkatu ziren. Herriko trikitilariei dagokienez Joseba Olagaraik, Nerea Maia lesakarra lagun zuela, 4. postua lortu zuen eta Nagore Ansalasek 5. egin zuen, Oihana Almandozekin. Jone Elgorriaga antolatzaileak balorazio positiboa egin zuen eta errepikatzeko modukoa dela aipatu digu.

### *Kultur Etxea martxan*

Badira zenbait urte Kultur Etxearen proiektua mahai gainean zegoela. Etxearen kanpoaldeko obrak egin baziztuzten ere, barrenekoak egin beharrak ziren. Uztailaren lehenbiziko egunetan Lasaga-Telletxea eraikuntza enpresak hasi zituen lan hauek 19.657.941 pezetako aurrekontuarekin. Obra 2001eko urriaren 15erako akautu beharko dute. Dena den, igogailuaren instalazioa egiteko erabakia oraindik hartu gabe dago, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzarik eman ez duelakoz.

FLASH

### *Baserrietako bideak hobetzeko plana*

Urte hasieran udaletxeak adierazi zuen bezala, baserrietako bideak moldatzen segitzeko intentzioa du. Udal batzarraren aktan azaldutakoaren arabera, bideak moldatzeko hiru urteko plana egin dute eta hamar milioi pezetako aurrekontua dute gutti goiti-beheiti. Obrak finantziatzerakoan, udaletxeak %75a ordainduko du eta gainerako %25a interesatutako auzotarrak, nahiz eta portzentai hauetan salbuespenak egon daitezkeen.

### *Elisabet Mendiaren erakusketa*

Ez da lehenbiziko aldia Zumarragako margolari honek bere koadroak erakusgai jartzen dituela Herriko Ostatuan. Egun hauetan jarria dagoen erakusketa 22 obraz osatuta dago eta bere gai nagusia Etxalar da. Bereziki Urtzaskieta auzoko paisaiak nabarmentzen dira margo-lan koloretsu eta bizietan. Udazkena bitartean ikusgai egonen dira eta nahi duenak etxeko edozein xoko alaitzen duten koadro hauetakoren bat erosteko aukera ere izanen du.



BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

IGANTZI

# 25 igantziar izan ziren Beran euskararen aldeko ekitaldian

## Elizako dorreko erlojua automatizatu du Herriko Etxeak

Oskar TXOPERENA

Uztailaren 5ean Beran egindako euskararen aldeko bilkuran 25 igantziar izan ziren hainbat elkarte eta erakunde ordezkatuz: Herriko-etxea, Biltoki Elkartea, Biltoki Ttiki Elkartea, Igantziko Euskara Batzordea, Igantziko Abesbatza, Guraso Elkartea, Igantziko Eskola, Herri Kirol Taldea, etabar... Horietaz gain, beren eginkizunetan nabarmentzen diren bertze zenbait herritar ere izan ziren: kirolari, sukaldari, etabar...

### Futbito Txapelketa

Bortzirietako Futbito Txapelketa irabaztea lortu zuen Igantziko Biltokiko taldeak. Ekainaren 30ean jokatutako finalean 4-3 nagusitu zitzaizkien Lesakako Zaharra taldeko partaideei, partidu borrokatuan.

Finalaz eta txapelketaz kirol orrietan informazio zabalagoa aurkituko duzue.



Arron ARIZTEGI

Belate taldeak antolatutako Udaberri Txapelketa irabazteko atarian gelditu behar izan zuen Biltoki Elkarteko Pilota taldeak, uztailaren 1ean Zizur Nagusian jokatutako finalean 2-1 galdu baitzuen Araitz-Beteluko taldearen aurka. Momentuko atsekabea pasatu ondotik, pozik itzuli ziren herrira azpitxapeldunen sariarekin. Orain atsedena izanen dute herriko txapelketa jokatu bitartean, eta ondotik udazken eta negu partean jokatzen diren txapelketei begira prestatzen hasi beharko dute.



Elizaren aitzinaldea.

### *Elizako erlojua automatizatu egin dute*

Nabaritu izanen duzuen bezala, aldatu egin da pixka bat elizaren dorrean dagoen erlojuaren martxa. Kanpotik, ezkilak azkarrago jo eta ordu erditan bi ezkil bakarrik jotzen dituela nabarituko dugu bakarrik, baina, aldaketarik nabarmenena inork ez diola hemendik aintzinera kuerdarik eman beharko izan da. Moldaketa 700.000 pezeta gosta zaio Herrikoetxeari eta Koreilako Latorre etxeak egin ditu.

Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

KATEA-BIKE
Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Kantonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948 631218
Salmenta eta konponketa

TXIRULA
loredenda
Altzetur, 39-K
☎ 627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

SALAZONES UDANA, S. L.
Inportaziozko lebea kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta hozgelatua, erabiltzeko prest
Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550



LESAKA

ARANTZA

# Igerian ikastera Igantzira doazi aurten ere herriko neska-mutikoak

## Uztailaren 16tik abuztuaren 10era haurrendako denborapasak eginen

Garbiñe eta Elixabet

Guraso Elkarteak, urtero bezala, igeriketa ikastaroa antolatu du uztailean Igantziko igerilekuan. Goizetan, 10:45etan abiatuko da autobusa eta itzulia eguerdiko 1etan izanen dute neska-mutikoek. Denetara hogeita hamabortz haur badira apuntatuak igerilekura joateko, baina haietatik hamarrek bakarrik hartuko dute parte igeriketa ikastaroan. Zaintzaile gisa txandatuz ibiliko dira gurasoak. Hauek gogorarazi nahi dute Igantziko igerilekura joateko autobusa, nahi duen edozeinentzat irekia dagoela.



Gurutze MAIZ

**Euskal Herriko leku ezberdinetatik 30 bat lagun etorri dira aurten ere Aterpeko barnetegira. Gure artean euskara ikasteko intentzioarekin elkartu dira.**

### *Haurrendako denborapasak*

Bertzalde, uztailaren 16tik abuztuaren 10era, herriko haurrek patinaia ikastaroa eta bertze hainbat ekitaldi ezberdin egiteko aukera izanen dute gurasoek denborapasa egiteko prestatutako egitarauaren barnean. Dagoeneko hogeita bortz neska-mutikok eman dute izena eta Raul Iparragirre izanen dute monitore. Uda ongi pasatzeko aukera nonahi, beraz.

## FLASH

### *Ibilgailuen gaineko zerga*

Aurtengo ibilgailuen gaineko zergaren abisua etxez etxe pasatu du Udalak. Udaletxean atte batez egon ziren jendaurrean eta oran bankutik kobratzen hasiak dira. Erran beharda, gainera, bankutik ordaindu behar ez dutenek, hilabete hau izanen dutela Herriko Etxean ordaintzeko. Edozein gisako ibilgailua (auto, moto, kamioi, erremolka, traktore, taxia...) duenak ordaindu behar du zerga hau.

### *Euskara Zerbitzuaren Udalekuak*

Bortzirietako Euskara Zerbitzuak udalekuak antolatu ditu leku ezberdinetan. Herrikoharrak ere herri ezberdinetara joanen dira uztaila osoan. Honela, uztailaren 1etik 7ra iparraldeko Azkarate herrian izan ziren, uztailaren 4tik 10era Errekalde-Donostian izan ziren eta uztailaren 18tik 25era Bizkaiako Apergiz herrira joanen dira.




ALBERGEA JATETXEA
✆ 948 634179
ARANTZA


BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Anezlo karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06



ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 94863|10...
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735


DONEZTEBE

# Giro ederrean eta eguraldi ederrarekin joan dira aurtengo San Pedro bestak

Hita eta Txoperena igantziarrek irabazi dute paleta goma txapelketa






**Txupinazoa, banderaren dantza, betizuak eta karaokea: aurtengo bestek utzi dituzten irudiak.**

Pabl IRIARTE

Eguraldiaren kexurik ederen ez da izanen aurtengo besten berri ematerakoan. Eguraldi ederra eta giro parega-bea izan da aurtengo bestek utzi duitena.

Trikitixa txapelketan, Nekane Etxandi eta Es-tibu Elgorriaga lesaka-rrak izan ziren txapel-dun, joan den urteko ira-bazleak, Oihana Alman-doz lesakarra eta Na-gore Antsalas etxalar-tarra, gibelean utzita.

### VI. Paleta goma txapelketa eta XXIII. Herri Lasterketa

Igantziko Hita eta Txoperenak irabazi du-te Ereka elkarteak Uda-laren laguntzaz seiga-rren aldiz antolatutako paleta goma txapelke-ta. Final ikusgarrian 30 eta 27 irabazi zieten Ur-dazubiko Larralde eta Oztako Lakostari. Ira-bazleek, txapela eta sa-riaz gain, 50.000 peze-ta eskuratu zituzten. Az-piltxapeldunek 30.000 pezeta jaso zituzten. Hirugarren posturako lehian Lopez eta Pernautek 30 eta 24 irabazi zieten Doneztebeko Luismi Apezetxea eta Patxiku Ganboari.

Astebete lehenago, San Juan egunean, egin zen XXIII. Herri Lasterketa. Senior mailan, Rafa Maritxalar lesakarra nagusitu zen. Zortzi kilometroak egiteko 23 minutu eta 19 segundutan egin ondotik. Celestino Aranguren noaindarra izan zen bigarren eta Aingeru Mindegia leitzarra hirugarren.

H. Lopez
iturgintza
Kalefakzioa
Gas instalazioak
Iturgintza lanak
Ureztatze sistemak
Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE


APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...
Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

616 513 491
PITTI

ESKABAZIOAK

MALERREKA

# Iturengo bestak ortziral arratseko txupinazoarekin hasiko dira

Igande arratsaldean herri kirol ikuskizuna izanen da

**Ortzirala**
**Uztailak 13**

**21:00etan** TXUPINAZOA. Gero kalejira trikitilari eta txistulariekin. **Gaueko 12:30etatik-4ak arte**, dantzaldia IMUNTZO ETA BELOKI taldearekin.

**Larunbata**
**Uztailak 14**

**10:00etan**, kalejira trikitilari eta txistulariekin. **12:00etan** Pilota partiduak, Txarutako pilotariekin. **18:00etan** trikitixa emanaldia, Josune eta Ainhoa Irastorza eta Mindegia senideak, beraien ikasleekin. **20:00etatik-22:00ak** arte eta **00:30etatik 04:00ak** arte dantzaldiak GAU-BELA taldearekin.

**Igandea**
**Uztailak 15**

**10:00etan** Kalejira trikitilari eta txistulariekin. **12:00etan** Meza Nagusia. **18:00etan:** Herri Kirolak. Aizkolariak: Dani Vicente - Felix Etxeberria. Cristina Saralegi - Maika Ariztegi. Harrijasotzailea: Migeltxo Saralegi. Dantzaldiak GAU-BELA taldearekin, betiko orduetan.

**Astelehena**
**Uztailak 16**
**Haurren Eguna**

**10:00etan**, kalejira trikitilari eta txistulariekin. **11:00etan** Plater tiraketa herriko helduentzat. **11:00etatik 14:00ak** arte eta **17:00etatik 19:00ak** arte Haur Jokuak: Txirrista, tren ibilaldia eta Piloten Etxea. Arratsaldean, "Txokolate jatea" izanen dute, herriko plazan. **17:00etan** Mus Txapelketa. Dantzaldiak IRAST taldearekin, eguneroko orduetan.

**Asteartea**
**Uztailak 17**

**10:00etan** Kalejira trikitilari eta txistulariekin. **14:30etan**, urtero bezela Herri bazkaria. Ondoren, kalejira. Arratsaldez eta Gauez, dantzaldia MINDEGIA TRIKI-DANCE taldearekin. Gero, "POBRE DE MI" eta besten bukaera.



1967-68 ikasturtean, mutikoen eskola atarian ateratako argazkia. Begiratu ongi, eta seguraski gehiegi aldatu ez diren aunitz harrapatuko dituzue.


ALTXUNEA ERRETEGIA



ITUREN
Besta onak pasa!
Tfnoa: 948 450 410

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91




ITVRENGO HERRIKO OSTATVA
✆ 948 450325
ITUREN



Teilatuko zurak
Etxe zaharren moldaketa
Etxe berriak
Eskailerak
Sukalde-mobleak
AURTIZ

zure herriko berriak egunero
ttipi-ttapa telebista

MALERREKA

# Elgorriagako Santio bestak uztailaren 25etik 29ra

Gurpil aulkian dantza egiten Munduko txapeldun direnen emanaldia Santiago egunean

**Asteazkena Uztailak 25**
**:00etan** Diana. **10:00etan** bestei ha-era emateko altxafe-a. **12:00etan** Meza bestua eta segidan ha-meketakoa. **17:00etan** gurpil aulkian dantza egiten Munduko txapel-dun direnen emanaldia. **19:00etan** bertako tor-atxapelketa. Ondoren afaria. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MO-DESTOrekin.

**Ortzeguna Uztailak 26**
**11:00etan** haur jokuak. **17:00etan** Bigarren par-tes lehiaketa. **Arratsaldez eta gauez** dan-tzaldia MODESTOrekin.

**Ortzirala Uztailak 27**
**11:00etan** Haur jokuak. **17:00etan** XXXIV. he-rrikomus txapelketa eta berendua. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia BASAJAUN taldearekin.



Joan den urteko zikiro-jatean ateratako argazkia

**Larunbata Uztailak 28**
**11:00etan** Krossa. **18:00etan** herri kirolak. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia GAU-BELA taldearekin.

**Igandea Uztailak 29**
**9:00etan** Diana. **12:00etan** toka txapelketa. **14:00etan** zikiro-jatea. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia RAMON MITXELENA eta bere semearekin eta besten akabaila.

Bestetan Doneztebeko Beti-Alai fanfarreak joko du. Uztailaren 24an (asteartea) Hilarion jatetxean Malerrekako zopak jateko aukera izanen da.

ITURENGO UDALA

*Iturengo Udalak*

*Besta zoriontsuak*

*opa dizkizue*

*Iturendar*

*eta bisitari guztioi*

*Burdinlan artistikoa*
MARTIN - IBARRA
Tfnoa: 948 450235 • ELGORRIAGA

ETXEBERRIA ZURGINDEGIA

*Ongi pasa bestetan!*

✆ 948 45 03 10 • ELGORRIAGA

SALDIAS

# Eskulanetan egindako futbolina erakutsiz bukatu dute ikasturtea eskolako ikasleek

## Bertso paper lehiaketan saria jaso zuen Maite Eratsunek

ttipi-ttapa

Ekainaren 22an, Saldiasko eskolako ikasleek ere, aurtengo ikasturteari amaiera eman zioten. Bukaera polita eman nahian, azkeneko goizean gurasoei eta herriko beste bizilagun guziei dei egin zieten, gelan bertan antolatu zuten erakusketa ikus zezaten. Erakusketa horretan, urtean egindako eskulanak ageri ziren. Hauen artean, ikusmin gehien sortu zuena, ikasle guziek elkarlanean egindako «futbolina» izan zen. Horrez gain, ikasturtean ateratako diapositibak eta argazkiak izan ziren ikusgai eta bukatzeko, hamaiketako ederra hartu zuten. Ikasturte bukaera goxoa izan zuten, herriko festak hasi baitziren egun berean.



Saldiasko eskolako zazpi ikasleak, Garikoitz, Maite, Endika, Mireia, Aritz, Goretti eta Asier, ikasturtean elkarren artean egindako futbolin ederrarekin jolasten.

Aurten, bi ikaslek bukatu dute Saldiasko ikastaldia, Garikoitz eta Maitek. Beraz, he... den ikasturtean bo... besterik ez dira izan... eskola txiki honetan j... rraituko dutenak (End... ka, Mireia, Aritz, Gor... tti eta Asier). Halere, g... txi izan arren, aurre... segitzeko asmoa du... eta animo handiz p... nera.

**BERTSO-PAPER LEHIAKETAN SARIA JASO ZUEN MAITE ERASUN...**

Bestaldetik, aipat... beharra da Nafarroak... XV. Bertso paper leh... ketan Maite Erasun, Le... hen Hezkuntzako bos... garren eta seigarren... mailakoen artean sar... duna izan zela eta ho... nekin batera, aipame... berezia jaso zutela En... dika eta Mireiak.

ERATSUN

# San Juan eta San Pablo baseliza moldatu eta berriz zabaldu da

## Bi jubilatuk egin dute lanik handiena



Baseliza berritura hainbat bizilagun hurbildu zi... San Juan eguneko inaugurazioan.

Kanposantu ondoan dagoen San Juan eta San Pabloren eliza moldatua berriz ere ekainaren 24an zabaldu zuten. Honela, San Juan eguneko meza bertan eman ahal izan zuen Tiburtzio Sanzberro apezak.

Moldaketa lanak joan den urteko Santa Luzia egunean hasi ziren, abenduaren 13an. Geroztik, lau hilabete eman dituzte lanean Eratsungo bizilagunek. XVII. mendeko baseliza hau, guztiz berritu egin dute barnetik eta kanpotik ere paretak moldatu eta pintatu egin dute. Aipatu bezala, eratsundar askok hartu du parte moldaketa lanetan, baina horien artean Angel Mariezkurrena eta Julian Retegi jubilatuen lana aipatu behar da, beraien denbora libre guzia ermitan eman baitute. Biek aipatu dutenez, igeltsero bat hamabost egunez aritu zen eta zurgin batek, teilatuaren zura paratu zuen, *«baina gainerako guzia auzolanean egin dugu. Batzuk gauza batetaz dakite, beste batzuk beste batetaz. Dela luzatu zen eta posible zuenak eta nahi zuenak lan egin zuen»*. Lanen aurrekontua 3 milioi pezetatik goitikoa izan da.

ARANO

# Santio jaiak uztailaren 21etik 26ra ospatuko dira

San Joakin eta Santa Ana eguneko bazkariarekin bukatuko dira



BEGOÑA LEONETEK UTZIA

**Dantzariak, 1957. urtean: aurrean Martxel Ansa, Jose Antonio Bergara, Pedro Mª Zabala, Javier Leonet, Luis Mª Altzuri, Roque Zabala, Jose Antonio Legarreta, Jose Antonio Ansa, Severiano Zubiri eta Josetxo Perurena. 2. lerroan: Mª Teresa Zubiri, Mª Carmen Olaizola, Mª Josefa Zabala, Mª Pilar Perurena, Mª Angeles Legarreta, Mª Dolores Ansa, Coro Zabala, Mª Paz Legarreta. Kaleko jantziekin, atzean, musikariak. Txistulariak: Antonio Andueza, Jesus Leonet, Victos Eskudero. Atabala: Jose Martin Legarreta.**

**Larunbata**
**Uztailak 14**

**16:00etan** pilota txapelketako finalerdiak: neskak palaz, mutilak palaz eta eskuz.
**19:30etan** Kale Antzerkia plazan: Panta Rhei taldearen «Saraba», Euskara Zerbitzuak antolatua.

**Ostirala**
**Uztailak 20**

**22:30etan** ohiko Mus txapelketa.

**Larunbata**
**Uztailak 21**

**12:00etan** jaiei hasiera emango dien suziria. **17:00etan** pilota txapelketako finalak. **22:00etan** oilasko jatea San Roque elkartean. Ondoren, gaupasa MUTUTRUK taldearekin

**Igandea**
**Uztailak 22**

**10:00etan** goiz-soinua trikitilariekin. **11:00etan** Meza. **12:00etan** pilota partiduak infantilen artean. **18:00etan** Gorritiren showa. **19:00etan** txokolatada haundia. **19:30etan** Eriz magoa (Euskara Zerbitzuak antolatua). **Goiz-arratsaldez** zeramika erakusketa Arotzaundin.

**Asteartea**
**Uztailak 24**

**20:00etan** Meza. **20:30etan** Doinu-zale musika eskolaren kontzertua.

**Asteazkena**
**Uztailak 25**

**10:00etan** Goiz-soinua. **11:00etan** Meza. **12:30etan** pilota partidua Arano eta Goizuetako afizionatuen artean. **18:00etan** Saralegi anai-arreben herri kirol ikuskizuna. **19:30etan** bertsolariak: Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Jesus Mª Irazu eta Iker Osa. Gai-jartzailea Xabier Legarreta izango da. Ondoren, Aranoko festetako sorteoa egingo da. **20:30etan** trikitixa. Leire eta Itxasok alaituko dituzte herriko kaleak.

**Osteguna**
**Uztailak 26**

**10:00etan** Goiz-soinua trikitilariekin. **11:00etan** Meza jubilatuei eskeinia. Ondoren hamaiketakoa Gure Ametsa ostatuan. **12:30etan** pilota partiduak afizionatuen artean. **14:00etan** bazkaria Herriko Etxea ostatuan, Imanol Lazkano eta Joxe Agirre bertsolariekin eta Leire eta Itxaso trikitilariekin.

Oilasko jatearen txartelak uztailaren 20a bitarte salgai izangodira herriko tabernetan, 2.500 pezetatan (prezio osoa).

Benta Berri jatetxea
Larunbatetan itxita
Sukaldaritza tradizionala
✆ 948 514016 • Urumea • ARANO

GURE AMETSA
jatetxea
Jai zoriontsuak opa dizkizugu
✆ 948 514000 • ARANO

ARANOKO HERRIKO TABERNA
Bokadiloak
Bazkariak
✆ 948 514279
ARANO

manelsa S.L.
elektrizitate industriala
**Instalazio eta muntaia elektrikoak**
**Mantenimendua**
**Automatismoak**
**Iluminazioa**

Amaiur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
**31700 ELIZONDO**

Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
**31195 BERRIOZAR (Nafarroa)**

LEITZA

# Hemen dira berriz ere Saharako umeak

## Dantzaldia eta kantaldia izanen dira herrian, Cultur-en barnean



Saharan jaso ezin duten zerbitzuak jasoko dituzte hemen neska-mutikoek.

**Joseba AZPIROZ**

Saharar haurrak, garagarrilaren 30ean heldu beharrak ziren baina, hau idazterakoan oraindik ailegatzekoak ziren. Dirudienez bisatuekin arazoak izan zituzten baino uztaren 7rako edo hemen izatea espero zuten. Dakizuenez, beraien herrian jaso ezin ditzaketen hainbat zerbitzu (osasuna, elikadura,...) jasotzeko aukera izateko eta Saharar herriaren egoera zein den ezagutarazteko eta elkartasuna adierazteko antolatutako proiektuari esker etortzen dira haur hauek. Hau argitaratzerakoan hemen izanen direlakoan, ongi etorri, neska-mutikoak!

### Adinekoei omenaldia

Arkupeak elkarteak, San Pedro egunaren bezperan urtero egiten duen moduan, aurten 85 urte betetzen dituztenak eta urrezko ezteiak egiten dituztenak omendu zituen. Josefa Baleztena Juantorenak bete ditu eta Jeronima Arraras Zubillagak beteko ditu laurogeita bost urte eta Justo Berasategi eta Mª Jesus Sagastibeltzak berriz, urrezko ezteiak azaroan eginen dituzte.

### Euskal Nortasun Agiria

Garagarrilaren 30a ezkeroztik Euskal Herriko Naziotasun Aitormenaren Agiria eskatu daiteke Leitzako Udaletxean. Bulego orduetan eskatu behar da eta herrian erroldaturik egon ezkero, Udalbiltzak Euskadiko Kutxan eta Nafarroako Kutxan dituen kontuetako batean 2.000 pezeta ordaindutakoaren agiria eta hiru argazki aurkeztu behar dira. Lehendabiziko lau egunetan hogeita hamar eskaera baino gehiago jaso dira.

### Cultur 2001

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako partzuergo turistikoak (besteak beste) antolatu duten Cultur 2001 egitarauaren barnean, bi ekitaldi eginen dira Leitzan. Lehenengoa, Larraiza dantza taldearen emanaldia, hilaren 21ean, larunbata, arratsaldeko 8,30etan, plazan (euria eginez gero, pilotalekuan) izanen da. Bigarrena berriz, Annaluisa & Dixielangileak Brass Band taldearen kantaldia, abuztuaren 4an, larunbata, arratsaldeko 8,30etan, plazan (euriarekin, zinean).

ARESO

# San Pedro jaiak ospatu ziren etxez etxeko ohiko eskearekin

## Maitane Gereño Euskal Herriko txapeldun igerian



Uztailaren 1ean antzerki emanaldia izan zen.

**Juana Mari SAIZAR**

San Pedro jaiak ekainaren azken asteburuan ospatu ziren, ohiturari eutsiz. Lagun-Artekoek Ohiko eskea etxez etxe herrian eta baserrietan egin zuten. Afariak eta bazkariak, berriz, Pake-Toki elkartean. Meza entzun eta San Pedrorekin prozesioa egin zuten gazteek, santua eramanez.

Ondoren, hamaiketakoa izan zuten, ogi, ardo eta gaztarekin. Igande arratsaldez, Euskara Zerbitzuak antolatuta antzerkia egin zen plazan. Bukaeran txokolatea eta dantzaldia Joxe Angelekin eta txistulariarekin.

### Maitane Gereño Euskal Herriko txapeldun

Euskal Herriko igeri txapelketa, ekainaren 30 eta uztailaren 1ean Bilbon burutu zen. Maitane Gereñok, ehun metro libretan, urrezko domina lortu zuen infantil mailan, 1' 11" 6 zentesimako denborarekin. 200 metrotan zilarra lortu zuen (2' 34" 02).

### Informatika ikastaroak

Udalak antolatu ditu informatika eta Interneteko ikastaroak. Hamar egunez eman dira, bina orduko bi saioetan. Hamasei lagun bildu dira ikastaroan.

GOIZUETA

# EHNAren aldeko mozioa onartu zuen Udalak

Abudo tramitatu ahal izanen da



Argazkia: Esteban

**Ahobatez onartu zuen Udalak EHNAren aldeko mozioa**

Esteban ARÓTZENA

Ekainaren 23an bu-tutako batzar berezian Euskal Herriko Norta-sun Agiriaren aldeko mozioa onartu zuen ahobatez Udalbatzak. Lerro hauek idaztera-koan oraindik zehaztu gabe zegoen larunbat batean zabalduko du Udalak EHNA-ren tramitazioa eta ges-tioa bere gain hartuko duen bulegoa. Dena den, euskal karneta es-kuratzeko aukera ireki-ta geldituko da egun ho-rretatik aurrera ere.

### *Graffiti ikastaroa*

Ekintza berezia egi-tan orain dela hamabost bat egun Gizarte Zerbi-tzuak eta Gazte Asanbladak antolatuta-koa: Graffiti ikastaroa. Irisarriko pilota plazako ezker paretari emanda-ko itxuraldaketa ikustea merezi duen horietakoa da.





**Ane Zinkunegik zuzentzen duen judo eskolak ekainaren 23an herriko plazan egindako erakustaldiarekin eman zion bukaera aurtengo ikasturteari.**

ERREPIDEAK

# Belateko tunela uztailaren 16an itxiko dute moldaketak egiteko

Mariezkurrena enpresak eginen ditu lanak




Artxiboa

**Horrelako irudiak ikusiko dira berriz ere uztaila-ren 16tik urriaren lehendabiziko astera.**

Ibai-Ttapa

Uztailaren 16an itxi eta urriaren lehendabi-ziko astea bitartean ez da irekiko Almandoz eta Belateko tunelak, Nafarroako Gobernua-ren Herrilan Departa-menduak egindako au-rrekuspenaren arabe-ra. Berez, bi tunel hauek behin betirako molda-tzea helburu duten la-nek hamar asteko irau-pena izanen dute eta urriaz geroztik bertatik pasatu ahal izanen da berriz ere. Bitartean, Be-lateko mendatea igan eta jautsi beharko da bertze behingoz. Lanak Mariezkurrena eraikun-tza enpresak eginen di-tu 609 milioi pezetaren truke. Guzira zortzi en-presa aurkeztu ziren lehiaketara, baina bai diru aldetik baita tekni-ko aldetik ere, Donezte-beko enpresarena izan zen eskaintzarik onena.

Herrilan Departa-menduak udako data hauek hautatu ditu mol-daketa lanak egiteko, *«enpresen lana jausten delakotz eta, honen-bertzez, kamioien ha-rat-honata ere bai»*. Na-farroako Parlamentuko oposizioa ez zegoen konforme erabaki ho-nekin.

BAZTAN

# Baztandarren Biltzarra uztailaren 21 eta 22an ospatuko da

## Bazkalondoan omenaldi berezia eginen zaio Mariano Izeta zenari

Rakel GOÑI

Uztailaren 21 eta 22ko asteburuan Baztandarren Biltzarra besta ospatuko da. Ohi den bezala larunbatean gau pasa izanen da Laiotz taldearekin. Karriketan Los Incansables txaranga eta gaiteroak ibiliko dira. Igandean goizeko 10etan artisauen erakusketa irekiko da, 12etan 15 herrietako orgen desfilea eginen da. Ondotik mutil dantzak izanen dira Elizondoko Foruen Plazan. Eguerdiko 2 orduetan 1.600 pertsonek merkatuko plazan jateko aukera izanen dute. Aurtengo menuak aldaketa ttiki batzuk izan ditu piperrada, patata tortilla, haragia saltsan, pastela eta izozkia janen da. Arratsaldean egiten den jaialdian bertsolariak eta abeslariak arituko dira eta ohi den bezala muxikoak eta bertako dantzak dantzatzeko aukera izanen da. Aurtengo kartel lehiaketaren saria Polo Gartzia irundarrak jasoko du jaialdi berean, Polo aspalditik bizi da Elbeten eta bertze urte batean 2 saria lortua zuen kartel lehiaketan (ezkerretara aurtengo kartela Mariano Izetaren irudia hondoan difuminatua ikus daiteke).



70. hamarkadan egin zen orga ederra. Ikus daitekenez orgek egiten zuten ibilbidea desberdina zen garai hartan.




Baztandarren Biltzarrean lehenengo aldiz ez da Mariano Izeta euskalzalea izanen, hori dela eta hutsik egiten ez zuen egunean omenaldi berezia eginen zaio. Senitartekoei oroigarri bat emanen zaie Marianoren lana eskertzeko. Dantzaldia ere izanen da Triki Ta Ke taldearekin. Azkenik besta akitzeko arratsalde eta gauean Foruen Plazan Etzakit taldea arituko da.

Urtero bezala jende aunitzen beharra izanen da ekitaldiak aitzin ateratzeko. Norbaitek bere burua eskeini nahi badu besta antolatzen laguntzeko, tabernako turnoetan, zerbitzari lanetan, aparkalekuetan eta abar aski du Baztandarren Biltzarraren egoitzara, Merkatuko Plazara hurbiltzea. Animatu eta parte hartu baztandar guztien bestan!

FLASH

### *Egur loteak eskatzeko epea zabaldu da*

Urtero bezala negurako egur loteak nahi dituztenek bañeko udalera zuzendu beharko dira eskaera orra betetzeko, nahi izanez gero ere herriko alkate jauregierengana jo dezake zue informazioa eskatzeko. Epea abuztuaren 31an akituko da eta epetik kanpo ez dira eskaerarik onartuko

### *Kultur etxe berriarendako dirulaguntza*

Nafarroako Gobernuak 186 milioiko dirulaguntza onartu du Baztanen kultur etxe berria egiteko. Diru honekin proiektu eta obren erdia ordaindu ahal izanen da gainontzekoa udalak jarri beharko du.

### *Baztango Dantzariak dantza lehiaketan*

Erresuma Batuan Llangollen herrian egiten den dantza lehiaketan bigarren saria lortu dute Baztango Dantzariek. Lehendabiziko postutik puntu bakarrera gelditu dira Europa osoko hainbat talderen artean.

### *Lekarozko igerilekuen inagurazioa*

Uztailaren 5ean Lekarozko aterpetxearen igerilekua ireki zen. Nafarroako Gobernuak 13 milioi gastatu ditu bertan konponketetan.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
✆ 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

ARROPA DENDA
FANTXIKE
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 58...
ELIZONDO

BAZTAN

# Frantziskotarren ikastetxean sutea izan da

Ikus entzutekoen gela kixkalita gertatu da

Ixkal GOÑI

Aita Frantziskotarren ikastetxea zenak su hartu zuen pasa den ekainaren 28an. Arratsaldeko 6.30etan Elizondoko bi gaztek eraikinaren teilatutik kea ateratzen zela konturatu ziren, 112 telefonora deitu ondotik SOS Nafarroak Oronoz Mugairiko bonberoak bidali zituen sutea itzaltzeko. Ordu erdian sua kontrolpean zegoen, baina aretoaren barnean zegoen beroarengatik ura botatzen segitu behar izan zuten. 7:30ak aldera Iruñetik bonberoen hirugarren taldea bidali zuten suak eragindako hondakinak ateratzen laguntzeko. Ikusentzuteko gelan butaka ugari zeuden oraindik eta haien materialak su hartzerakoan bero izugarria sortu zuten aretoan. Frantziskotarren ikastetxea aspalditik hutsa zegoen eta jabeek botatzeko baimena zuten jadanik. Ez dago argi sutea zerk edo nork eragin zuen, baina iturri ez ofizialen arabera inguruko gazte batzuk eraikina jolastoki bezala erabiltzen zuten eta balitke nahi gabe sutea eragitea.

Ikastetxearen ondoan dagoen urbanizazioko biztanleek kea ikusi zutenean urduritu ziren euren etxeak arras hurbil zeudelako. Dena den azkenean zorionez ez zen ezbehar larririk gertatu bonberoak laster sua itzali zutelako.



ONDIKOL/D. NOTICIAS

Aita Frantziskotarren egoitza duela urte batzuk.

### *Mediku azterketen udako ordutegia*

Elizondoko mediku azterketen zentruak, (ibilgailuen karneta ateratzeko, ehiza baimena ateratzeko eta abar) udako ordutegia martxan jarri du. Uztailaren 4, 11 eta 18an egonen da irekia 8etatik 2etara. Uztailaren 25ean itxita. Abuztuan bertzalde 1ean, 22an eta 29an irekiko da, 8etatik 2etara eta abuztuaren 8 eta 15ean itxita egonen da.

IKASTETXEAK



**Baztan ikastolako 3. eta 4. mailakoak Aritzakunen Ortzaizeko ikastolako ikasleekin.**

Baztan Ikastolako 3. eta 4. mailakoak, Ortzaizeko ikastolako lagunekin bildu ziren berriki Aritzakunen. Egun eder bat pasatu zuten bertako eskolan. Guztiak lehendik eskutitz eta argazkien bitartez ezagutzen ziren beraz egun hartan aurrez aurre ikusteko aukera izan zuten.

Bertzalde 5. eta 6. mailakoak inguruak ezagutzeko asmoz mendi ibilaldia egin zuten Gartzain, Irurita, Arraioz, Lekaroz eta Elizondo ibilbidea eginez. Ekainaren 20an ikastola itxi ondotik, 1. mailatik 6. maila arteko ikasle guztiak, Zuhatzako irlan egon ziren. Bertan ederki pasatu zuten egin daitezken ekitaldi guztietan parte hartuz.



**Ikasturte amaierako azkeneko bisita Haur Hezkuntzakoek egin zuten Bertizko Zabala etxera. Bertan inguruak ezagutzeko parada izan zuten eta ederki pasatu zuten elkarrekin oporralditxo huntan.**

ORDOKI LIKOPERK

ERRETEGIA

Tel. 948453410
Fax 948453378
ARIZKUN

Parrilan egindako haragi eta arrainak



GAZTANDEGIA

LIZUN

Etxeko Ardi Gazta

Potxinekoborda • Tfnoa. 948 450 862 • SUNBILLA

Gierresenea

OSTATU - JATETXEA

*Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa*

Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI



LARRALDEA

SAGARDOTEGIA

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua

Telleria Auzoa • LEKAROZ
✆ 948 452121

## SARA

# Ekitaldi ainitz izanen dira uztailean

### Traktore berria erosi du Herriko Etxeak

**Aña Mari eta Fred**

Urtero bezala, udaz baliatuz herriko elkarteek ekitaldi batzuk antolatzen dituzte sos pixka baten biltzeko. Uztailaren 14an, larunbatarekin, egun osoan Zazpiak Bat dantza elkarteak bere urteko besta nagusia ospatuko du. Dantza eta pilota ikuskizunak eskainiko dituzte errebotean, baita bazkaltzeko eta afaltzeko manera. Uztailaren 25eko, dantza ikuskizuna prestatuko dute arratseko 9ak terdietan. Uztailaren 15ean, Turismo Bulegoak antolaturik egun osoan eskulan eta bertze ekoizpenen azoka izanen da. Uztailaren 16 eta 23an, arratseko 9ak eta erdietan xistera partidak, 18an eta 20an, beti tenore berdinean indar jokoak eta Sara eta Senpereko kantarien emanaldia. Uztailaren 21ean, larunbatarekin, V. Pottokaren eguna iraganen da, goizeko 9etan hasiko da, pottoka eta behoka hazkuntzarekin. Gero, ohitura atxikiz, zikiro jatea antolatua izanen da.

### *V. Xoko lehiaketa*

Pleka trinketeak antolatutako V. Xoko lehiaketa erearoaren 30ean bururatu zen. 120 presunek hartu dute parte, horien artean emazte bakar bat, Martine Laduche azkaindarra. Finalak hirugarren mailatik hasiz maila hoberena arte jokatu ziren. Hona hemen emaitzak:

**3. mailan:** Philippe Lasaga (Sara), 30; Theo Bonnet (Senpere), 21.
**2. mailan**, A multzoan: Thomas Arrieta (Urruña), 30; Iñaki Etxeberri (Azkain), 21. B multzoan: Jean Claude Darritxon (Urruña), 30; Eric Cachenaut (Jatsu), 26.
**1. mailan:** Benoît Arotzarene (Senpere), 30; Totte Bereau (Senpere), 21.
**Mailaz kanpo:** Jean Claude Inda (Azkain), 30; Patrick Ezkurra (Urruña), 23.

Aurtengo txapelketa interesgarria ateri da. Paterne jaunak eskainitako harria Indak eskuratu baitu, hirugarren aldikotz irabazi duelakotz xoko lehiaketa hau maila hoberenean.

### *Herriko Etxeak traktore berria*

Herriko Etxeak traktore berri-berria erosi du zerbitzu teknikoentzat. Lehengoa zahartua zela eta, Gassuan-en etxean 200.000 libera baino gehiagoko tresna ederra erdietsi du. Honetaz gain, gure bide bazterren apaintzeko eta sasien pikatzeko balio duten traktore horietarik bat ere erosia izan da. Haatik, gastuak arinago izan daitezen, tresna zaharrak salduak izan dira.

Bertzalde, Herriko Etxean diren bi fotokopiagailuetatik bat aldatua izan da, berri baten truke. Hori da elkarteek eta publikoak erabiltzen ahalko dutena.

### *Somme departamendua elkartasuna*

Ainitz aipatuak izan dira udaberri honetan Frantziako Somme departamenduan gertatu uholde ikaragarriak, jende frango kaltetu baitute eta desmasia handiak egin. Horren ondotik, departamendu hartako auzapezen elkarteak elkartasun deia egin du, laguntza biltzeko nahian, eta ondorioz Sarako herriko kontseiluak 5000 libera eskaintzea deliberatu du.



**Olhain ikastolako haurrak Bizkaian izan dira ikasturte bukaeran. Hiru egunez Arteagan pausatu dira eta handik Agustin Ibarrolak Kortezubin margotutako Omako oihan liluragarria, Urdaibai erreserba naturala, bermeoko arrantzale museoa, Mundakako hondartza eta bertze bisitatu dituzte.**




**Uda honetan, BIGA elkarteak berriz abiatzen ditu euskal preso politikoen eta bereziki Bixente Garciaren aldeko elgarretaratzeak. Agerraldiak ortziraletan egin beharrak dira, arratseko 7etarik goiti herriko plazan. Haatik, azpimarratu behar dugu aste huntakoa larunbatarekin eginen dela (uztailaren 14an beraz). Ondoko asteetan aldiz, hitzordua ortziraletan izanen da.**






AZKAIN

# Elkarteen besta lehen aldikotz antolatu zuten

## Adin guzietakoak bildu ziren giro goxo batean

**...ntza, Angela eta Eneko**

Ekainaren 24an bil... dira Azkaingo elkar...eak lehen aldikotz bes...a bat antolatzeko be...en artean. Azkaindar ...uziak gomitatuak ziren. Denbora ederra zen eta parte hartze eder bat izan zen. Eguna meza nagusiarekin hasi eta gero, Kornelio musika eskolako haurrek plaza ...aitu zuten apentifako tenorean. Laster jendea Erromano Zubirat jautsi zen pik-nikatzeko arbolen itzalean, iduzkiak ere ez baitzuen hitzordua huts egin. Han elkarte batzuek pankarta batzuekin haien burua aurkeztu zuten argazki aitzinekin. Haurrek, gaz...ek, burasoek eta ai...txi-amatxiek behingo...n elgarrekin besta egi...ko okasionea apre...atu zuten. Bazkal on...oko pausatik goxoki ...artzeko haurrek ama...ziak desafiatu zituz...en soka tiran. Haurrek ...aren abilezia neurtu zu...n arroltze, zaku, ur eta ...bin jokoetan. Bigarren apentifako tenorea hurbiltzen ari zela, futbol partida bat antolatu behar zela erabakia izan zen, zerbait lixeritzeko bederen. Bestak plazan segitu zuen Ikasleak dantza taldearekin eta Jondoni Joaneko suarekin. Azkenak goizeko 2etan sartu ziren etxerat, dena zerratua baitzen eta biharamunean Astelehena baitzen.



**Eta bai neskak ere rugbian ari dira ...eta ongi! Xantal Garat eta Karine Higos azkaindarrak Herm herrian ari dira (Landesetan) Frantziako maila gorenean. Ekainaren 17 an iragan zen Frantziako Xapelketaren finala Limoges Herrian. Herm herriak Caen hiriaren kontra irabazi zuen (20 eta 19). Chantal Garat eta Karine Higos han ziren irabazteko. Estreinaldi hastapenean ez zuten holako gairaipenik espero. Ohiturak aldatuko dira behar bada orai Azkainen, neska talderik ez baita oraino inguruetan.**

Guy Dupont antolatzaileetarik bat izan da eta galdera batzuk egin dizkiogu. Berak dioenez, ondoko urteetan segituko du besta honek: *«Aurtengo borondate ona ondoko urteetan agertzen bada, jende gehiagoren parte hartzea igurikatzen ahalko da. Badira herrian leku egokiak holako gauzen antolatzeko, herriko plaza eta erromano zubia haietariko batzuk dira».*



PERTSONAIA

**Guy DUPONT**

### *«Elkarteen bestak segida izanen du»*

***Zergatik antolatu duzue holako eguna?***

Azkaingo biziaren erritmoa pitta bat lasaiegia zela ikusteak pena ematen du. Jakinik herriak ekintza desberdinen egiteko potentziala badu, nahi genuen adin desberdinetako jendeek eta herritarrek orokorki harreman sakonago izan dezaten. Pentsatu dugu beraz elkarteen bidez, kontakto orokor bat eragiten ahal genuela behar bada.

***Helburuak lortuak izan ote dira?***

Parte hartzaileen kopurua xifratzeko ez dut ideiarik ere. Ala ere Erromano Zubian, han ibili den jendea kondatzeko errexago baita, iduritzen zait jende ainitz bazela. Senditzen ahal zen giroak argiki erakusten zuen egunaren helburuak lortuak izan zirela.

***Esperientzia berritzeko prest ala ez?***

Nere nahia gauzatzen ahal banu, nahi nuke besta hori urtero antolatua izan dadin. Zeren eta okasione on bat da Azkaindarren biltzeko, maite baitute haien arteko harremanen sakontzea astia hartuz. Momentu horiek hain dira goxoak nun ez den ohartzen denbora zoin fite pasatzen den.

RESTAURANT MIGUEL
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
✆ 948 631209

BVRKAITZEA
ostatu
erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
✆ 948 599280 • URDAZUBI

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
✆ 948 599 131 - URDAZUBI

Harretche
Artisan
GOZOTEGIA
OKINDEGIA
S.A.R.L. ETCHE-ONA
AZKAIN
Tél. 59 54 01 67



# EZKONTZAK

**Juan Carlos Bidegain Zubiri** eta **Lorea Elizalde Fagoaga**, Arizkun eta Donostiakoa, Artikutzan, ekainaren 9an.

**Francisco Javier Opoka Bikondoa** eta **Idoia Mitxeo Mendiola**, Oronoz-Mugairi eta Gaztelukoa, ekainaren 16an.



# JAIOTZAK

**Janire Mindegia Etxepare**, Iturengoa, ekainaren 18an.

**Itziar Arburua Fagoaga**, Zugarramurdikoa, ekainaren 23an.

**Aritz Campos Sagastibeltza**, Leitzakoa, ekainaren 3an.

**Laida Ariztia Salas**, Berakoa, ekainaren 12an.

**Julen de la Loma Bergara**, Arantzakoa, ekainaren 14an.

**Aiala Mariezkurrena Urtsuegi**, Urrozkoa, ekainaren 26an.

**Aroa Kanabal Etxarte**, Igantzikoa, uztailaren 3an.



# HERIOTZAK

**Paulina Sagastibeltza Sukuntza**, Leitzakoa, ekainaren 18an, 78 urte.

**Jose Joaquin Zabaleta Uitzi**, Leitzakoa, ekainaren 25ean, 90 urte.

**Fermina Salaberria Zubiri**, Gozuetakoa, uztailaren 1ean, 71 urte.

**Dionisia Unanua Erro**, Igantzikoa, ekainaren 24an, 94 urte.

**Maria Otxandorena Baleztena**, Doneztebekoa, ekainaren 22an, 87 urte.

**Martin Baleztena Ezkurra**, Berakoa, ekainaren 27an, 79 urte.

**Angel Trantxe Etxeberria**, Igantzikoa, ekainaren 26an, 75 urte.

**Jose Maria Lasaga Irazabal**, Berakoa, ekainaren 30ean, 92 urte.

**Antonio Etxeberria Zubieta**, Lesakakoa, uztailaren 1ean, 73 urte.

**Felix Korta Lekuona**, Berakoa, uztailaren 3an, 83 urte.

**Joxe Ibarra Ibarra**, Doneztebekoa, uztailaren 3an, 87 urte.


ESKELAK eta URTEMUGA OROIGARRIAK
TTIPI-TTAPA TELEBISTA eta ALDIZKARIAN
© 948 63 11 88

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
GESTIONES FUNEBRES DEL NORTE, S.L.
© 900 704704
FUNERARIA ZERBITZUAK
LESAKA-DONEZTEBE
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletik edozein herritara trasladoak
Tfnoa 948 637404 .................... LESAKA
Tfnoa 948 450475 .................... DONEZTEBE
Tfnoa 948 580971 .................... BAZTAN

TOLDOS BAZTAN
TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorrak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...



☎ 948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind.•Baldrun, 8 • LESAKA - BERA
PERTSIANAK
ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK



PILOTA

# Txarutak irabazi zuen Belatek antolatutako Udaberriko Saria

Finalean Leitzari irabazi zion eta B mailan Igantzi azpitxapeldun izan zen

Baztan eta Malerre-ako pilotariak biltzen tuen Txaruta taldeak ta Leitzak jokatu zuten zailaren 1ean Belate elkarteak lehen aldiz an-tolatutako Udaberriko ota sariaren final na-gusia. Txarutakoak jaun ta jabe izan ziren Zi-ur Nagusiko pilotale-kuan, sei partiduetatik ortz irabazi baitzituz-ten.

Benjamin mailan, arutako Gonzalez eta dariagak 18 eta 14 abazi zieten Aranburu ta Jaurenari, 7-12 gal-ten joan ondotik.

Infantil eta kadete ailan Txarutakoen ga-ipen erreza espero an, beraz, alebin mai-an erabaki zen finala. ain ere, Txarutako esta eta Barberenak eta 10 irabazi zieten uztiza eta Sagasti-etza leitzarrei.

Apatu bezala, infan-eta kadetetan aisa gai-rdu ziren Txarutako-k: Urrutia eta Iraolak 3 ntutan utzi zituzten Zabilaga eta Iriarte eta Ibeberria eta Elizaldek 19 irabazi zieten Ola-tzal-Onsalori.

Jubeniletan ailegatu en leitzarren garaipen ikarra: Bengoetxea le-engusuek, laster pro-fesional izanen den Oi-ez tartean, 22 eta 10 abazi zieten Arraztoa ta Eskuderori.

Senior mailan, azke-, Txarutako Jaurena a Uhartek zazpi tan-an utzi zituzten Lei-tzakoMariñelarena eta Gartziari. Aitor Bengo-etxea zen txapelketa ha-seran leitzarren atzela-ria kategoria honetan, baina profesionaletan debutatu duenez, han-dietako bikotea ahul xa-mar gelditu zitzaien Lei-tzakoei. Beraz, txapela Txarutakoentzat eta bi-garren postua Leitza-koentzat. Kategoria ho-netan, Bera laugarren izan zen, Arantza zor-tzigarren eta Goizueta hamabosgarren.





**Belate elkarteak lehen aldiz antolatutako Udaberriko sari honek hainbat pilotariri jokatzeko aukera eman die. Argazkian horietako batzuk.**

#### Igantzi azpitxapeldun bigarren mailan

Bigarren mailan Araitz-Beteluk eta Igan-tzik jokatu zuten finala. Igantzi txapelatik tantu bakar batera egon zen. Benjaminetan, Begino eta Txoperena igan-tziarrek 18 eta 10 ira-bazi zieten Mikeo eta Pradosi. Partidu eraba-kigarria alebinetakoa zen. Retegi eta Goie-netxe igantziarrek tan-tu bakar batez, 17 eta 18 galdu zuten Huizi eta Jauregiren kontra. In-fantiletan, azkenik, Mi-txelena eta Irazoki igan-tziarrek 7 eta 18 galdu zuten Lopetegi eta Bar-beriaren kontra.

Igantziren kontra fi-nalerdia galdu zuen Le-saka izan zen hiruga-rren kategoria honetan.

#### Herriarteko txapelketaren finala

Bertzalde, igande ho-netan jokatzekoa zuen Txarutak Nafarroako Herriarteko pilota txa-pelketaren finala, Iru-ñaren kontra. Finaler-dian Uharte kanporatu zuen: Elizondon jokatu-tako lau partiduetatik hi-ru irabazi zituzten Txa-rutakoek eta Uharten bi.

BOTE PRONTON

### *Ander Agesta Elgetako txapelketaren finalean*

Ander Agesta pilotari aranztarrak ezin izan zuen ETB-Kantxa El-getako lau terdiko txa-pelketa famatua iraba-zi. 23 urtez beheitikoen mailan txapelketa bi-kaina egin zuen Aran-tzako aurrelariak. Fina-lerdietara ongi allegatu zen eta hor, zortzi tan-tutan utzi zuen Ubeda. Finala, duela bi urte txa-peldun izan zen Iñigo Leiza bizkaitarraren kon-tra jokatu zuen. Ongi ha-si zen Agesta, 6-0 aitzi-netik paratu baitzen, be-re eskuin kolpe luzean oinarrituta. Elgetako pi-lotalekuan egiten zuen beroak (33 gradu) eta partiduaren gogortasu-nak (414 pilotakada eman ziren) bi pilotarien hutsegite dexente era-gin zuten. Fisikoki ho-bekiago zegoela bazi-rudien ere, Agestak biz-kaitarrak baino huts gehiago egin zituen, lau terdiko marraz gibelera botatako pilotekin batez ere, eta hortik joan zi-tzaion partida. 8-8, 9-9, 13-13 eta 16-16 ber-dinduak egon ondotik, 22 eta 19 irabazi zuen Leizak.





**Ander Agesta eta Iñigo Leitza, Elgetako lau terdiko txapelketaren finalistak**



Joseba AZPIROZ

**Aitor BENGOETXEA** *Leitzako esku pilotaria*

### DATUAK...

- **Aitor Bengoetxea 21 urteko atzelari leitzarrak profesionaletako debuta egin zuen ekainaren 17an bere herrian. Kokarekin batera 19-22 galdu zuen Urionagena eta Naldaren kontra. Hiru urterako kontratua du Maeskurekin.**
- **Eskuz banakako txapeldun bi aldiz izandako Bengoetxea III, Juan Mari, da bere aita. Aitorrek Bengoetxea V izena darama kamisetan.**
- **Lehenengo mailan dagoen edozeinen antza izatea gustatuko litzaioke, baina bereziki Beloki eta Barriola aipatzen ditu.**

# «Aita-osabak egin zutenaz harro nago, baina horrek neretzat ez du balio»

Aitor AROTZENA

Profesional mailako debuta herrian bertan egitea egokitu zitzaion Aitor Bengoetxea, Bengoetxea V.ari eta galdu egin zuen. *«Alde batetik herrian debutatzea mesederako da, bizi guzian aritu zaren frontoian zaude, gehiago ezagutzen duzu eta gustora jokatzen duzu. Bestalde, egia da, herriko jendearen aurrean ongi gelditu nahi duzula»* dio Aitorrek. Geroztik beste partidu bat jokatu eta irabaztea ere lortu du. Bere ustez, alde nabarmena dago afizionatu eta profesionalen artean: *«Hemen tantua egiteko lan askoz gehiago egin behar da. Partidu luze eta gogorragoak izaten dira, erritmo gehiagorekin»*. Afizionatuetako azken urtean, 22 urtez azpikoentzako Munduko txapelketan lortutako bigarren postua da Bengoetxearen ustez bere lorpenik nagusiena.

Bere senide gehienak, aita, osaba nahiz laster profesionaletara salto eginen duen Oinatz lehengusu gaztea, aurrelariak izan dira, baina Bengoetxea V atzelari gisa aritzen da. *«Ni ez naiz ezaugarri berezirik duen pilotaria, baina denean nahiko erregularra naiz eta pilotan jokatzen jartzen dudan ilusioa eta gogoa aipatuko nituzke. Hori bai, ni eskuina naiz eta ezkerra hobetu beharko nuke, orduak sartuz eta entrenatuz»*. Eskuz banaka ere aritzen da eta azken bi urteetan Nafarroako azpitxapeldun izan da.

**Pilota eskolako mutikoek beraiekin ikusi gaituzte eta horrek ilusioa egiten die: bera allegatu bada, nik zergatik ez? galdetzen diote bere buruari.**

#### «Pilotan gozatzea lortzen badut gustora geldit000 naiz»

Barriola, Iparragirre, Aitor bera, abudo Bengoetxea VI… pilotari asko eman ditu Leitzako eskolak azken aldi hotan: *«Egia da, horrela suertatu da. Leitzako eskolan jende asko ari da lanean, askotan aipatu ere egiten ez direnak, baina beraien lana hor dago»*. Herriko gazteak profesionaletan kusita, haurrak ere pilotan gehiago saiatzen direla uste du Aitorrek: *«Mutikoek beraiekin ikusi gaituzte pilotan eta horrek ilusioa egiten die: bera allegatu bada nik zergatik ez dut allegatu behar? esaten dute. Niri gauza bera gertatzen zitzaidan Abel ikustean»*.

Familian maila altua jarri dute, marka handiak egin baitituzte, baina Bengoetxea V.ak helburu apalagoak jartzen dizkio bere buruari: *«Aitak eta osabak oso altu jarri dute listoia. Bera lana egin zuten eta nik aurrera segitzeko nerea egin beharko dut. Beraiek egin zutenaz harro nago, baina neretzat horrek ez du balio. Pilotan gozatzen saiatuko naiz. Allegatzen naizen lekura allegatzen naizela, disfrutatzen badut gustora egonen naiz»*.

FUTBITO

# Igantziko Biltokik irabazi du Bortzirietako futbito txapelketa

## 4-3 irabazi zion final borrokatuan Lesakako Zama taldeari

Igantziko Biltokik irabazi du Bortzirietako futbito txapelketa, ekainaren 30ean jokatutako final borrokatuan Lesakako Zama taldeari 4-3 irabazi ondotik. Igantziarrak hiru aldiz paratu ziren aitzinetik eta bertze horrenbertzetan berdindu zuten lesakarrek. Biltoki ongi itxi zen gibelean, defentsa sendo eta atezain bikain batekin, eta kontraeraso azkarretan oinarritu zuen jokua. Igantziarren laugarren gola ezin izan zuten berdindu Zamakoek. Azken gol hau, penalti eztabaidagarri baten ondorioz egin zuten Biltokikoek. Talde irabazlea honako jokalari hauek osatu zuten: Angel Urtxegi, Aiert Retegi, Juankar Unanua, Ismael Iturbide, Iñigo Telletxea, Mikel Arburua, Iñaki Iriarte, Mikel Ibarra sunbildarra eta Aingeru Irigoien. Angel Urtxegik atezainik onenaren saria eraman zuen.



Arrok

Igantziko Biltoki txapeldun suertatu da aurten

Zamakoek ere, azpitxapelketaz gain, talderik garbienaren saria eraman zuten eta Juanen Saralegi taldekidea txapelketako jokalaririk onena izendatu zuten. Golegile nagusia Berako Baietz Faidel taldeko Aritz Perez izan zen, 14 golekin. Hirugarren posturako lehian Zubietak 6-4 irabazi zion Lesakako Sporting Spartzing taldeari. Hamabi taldek hartu dute parte txapelketan.



Rara

Zama, azpitxapeldun eta talderik garbiena.



Arrok

Zubietak hirugarren postua eskuratu zuen.



Arrok

Sporting Spartzing, beti bezain jantzi orijinalekin.

BOTE PRONTON

### *Iparraldeko Joku Torneoa*

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Iparraldeko Joku Torneoa hiru jardunalditan burutu da, Etxauri, Saldias eta Erratzun. Koxkor biltzen, Fernando Etxegarai beratarra nagusitu da, Berriozarko Iñaki Ekisoain, Jose Antonio Lopez eta Roberto Larranua eta Berako Jaime Etxegaraien aitzinetik. Bortz kirolari hauek Nafarroako txapelketarako txartela eskuratu dute. Fernando Etxegaraik, gainera, Nafarroako errekor berri bat ezarri zuen Erratzuko azken saioan, 6 minutu, 20 segundu eta 15 zentesima. Ingude altxatzen, Xabi Sein igantziarra izan da onena, Josetxo Urrutia leitzarraren eta Felix de Miguel burlatarraren aitzinetik. Manuel Telletxea igantziarra 5. izan zen. Harrijasotzen, zilindroa, kopa eta bolarekin aritu ziren. Patxi Larretxea arraioztarra izan zen onena, Azpirozko Mikel Lasarte eta Josetxo Urrutia leitzarraren aitzinetik. Lasto altxatzen aritu ziren hiru bikoteak Igantzikoak ziren. Hiru saioetan Miguel Angel Etxarte eta Joseba Urbistondo gailendu ziren. Ondotik, Iñaki Bereau-Luis Mari Zelaieta eta Xabi Sein-Iban Txoperena sailkatu ziren. Zaku lasterketan, Baztan-Basaburuako hirukotea (Xabier Etxarri, Mikel Azkarate eta Xabier Maritorena) izan da onena, Berriozarren aitzinetik. Txinga eramaten, Patxi Larretxea arraioztarra izan da jaun eta jabe hiru saioetan, Burlatako Genaro Lazkoz eta Mikel Lasarte gibelean utzita.

# AGENDA
## egunez egun

### ZINEMA

**ITUREN**

**Uztailaren 20an** Iturengo Herriko Plazan, «Bai nahi dut» pelikula eskainiko da. Ibintza Kultur taldeak Malerrekako Euskara Zerbitzuaren laguntzaz antolatua.

### ERAKUSKETAK

**ETXALAR**

**Udazkena bitarte** Elisabet Mendia margolariaren lanak ikusgai Etxalarko Herriko Ostatuan.

**BERA**

**Uztailaren 15a bitarte** Kultur Etxean Maxus Lopez margolariaren lanak ikusgai. Goizeko 10etatik 2etara eta arratsaldeko 4etatik 7etara.

### BAZTANDARREN BILTZARRA

**ELIZONDO**

**Uztailaren 21 eta 22an.** Xehetasun gehiago 22. orrialdean.

### DANTZAK

**SARA**

**Uztailaren 14an** Zazpiak Bat dantza taldearen urteko besta nagusia. Dantza eta pilota ikuskizunak errebotean. Bazkaria eta afaria.

**Uztailaren 25ean** dantza ikuskizuna, arratseko 9,30etan.

### ESKULANAK

**SARA**

**Uztailaren 15ean** eskulan azoka, egun osoan. Turismo Bulegoak antolatuta.

### V. PTTOKA EGUNA

**SARA**

**Uztailaren 21ean** goizeko 9etatik aitzin (24. orrian).



## TELEBISTAKO TXOKOA




# Horrenbertze besta artean... IKASTB

Doneztebeko SanPedroek eman baldin bazieten udako bestei hasiera, Lesakako San Ferminak jarri diote gatza eta piperra, eta ondotik etorriko direnek gainerako mamia. Udaro bezala, herriko bestetan arrunt murgilduak gaude, eta noski, normala den bezala beraiek erakarri dute aktualitatearen zati haundiena. Baina azken urtean bezala TTIPI-TTAPA telebistan, ez gara horrekin konformatuko eta ikasturtea aspaldi bukatu denez, guk inguruko eskola eta ikastoletako ikasleek nahiz irakasleek egindako hainbat lan eta erreportai ateriko ditugu orain antenara. Gure ustetan oporrak baitira urtean barna egindako lanaren emaitza aztertzeko momentua, hori bai, hondartzan baldin bada hobe. Burutan hartu bada, IKASTB segidan hasiko da, eta gure eskualdeko haurrek hartuko dute mikrofonoa. Asteazkenetan, albistegiaren ondotik.

## DISKAK




*«Papier Cravate»*

**Yassa**

*SKUNK DISKAK*

Diallo (Bolikostakoa), Ca-simir (Senegalekoa), Stépane, Jimmy X, Cé-dric, Bonaventure eta Se-muelek osatzen dute Yassa. Baionan 1996an sortutako taldea 11 kan-tuz osatutako diska ga-lanta aurkeztu dute hun-takoan "Papier Cravate" izenburupean. Afro-reg-gae estilo dotorea jorra-tu dute eta mendebal-deko Afrikan bataiatuko da ere.

Diskoa Katarain estu-dioan grabatu zuten 2000ko udaberrian eta Kaki Arkarazo nahaske-tetaz arduratu zen. Eu-ropan uztailaren 3an egin zen aurkezpena Skunk diskak zigilupean.

Yassa taldea 1993an di-sagertu bazen ere tal-dea berriro osatzea lor-tu dute erritmo afrikarra bermeskuratzeko. "Papier Cravate"ren ekoizketaz Kaki Arkarazo eta Jimmy Arrabit arduratu dira.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Ekainaren 22tik 29ko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 10.800 pta.

**Zerri gizena**
(95-100): 248 pta/k.

**Zerramak:**
148/153 pta./kiloa, bizirik.

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**

| Idixkoak: Pta/kg. Kanal | |
|---|---|
| Extra | 465 |
| 1.koa | 445 |
| 2.koa | 425 |

| Urruxak: Pta/kg. Kanal | |
|---|---|
| Extra | 475 |
| 1.koa | 455 |
| 2.koa | 435 |

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):

**Nabarrak:** urruxak 42.000 eta idixkoak 40.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 38.000 eta idixkoak 31.000 Pta.

**Zaldikoak:** Pta/k
Sortuberriak: 555/565
Zaldi-behorrak: 375/385

**Bildotsak:** Pta/k
6-8 kilokoak: 975-1.025
8-10 kilokoak: 850-900

## JAKIN BEHARREKOAK



# Ordenagailua erosteko laguntzak

Nafarroako Gobernuak 5 aurrezki kutxa eta bankuekin "e-hogar" programa martxan jarri du. Hemendik aurrera ordenagailu bat erosi nahi duenak 25.000 pezetako dirulaguntza izanen du eta finantziazioa Nafarroako Kutxa, Nafarroako Rural Kutxa, Euskadiko Kutxa, Guipuzcoano Bankua edo Baskonia bankuan eskatzen [illegible] hauek bertze 20.000 pezeta emanen dizkiote erosleari. kredditua nahi den momentuan amortizatu daiteke eta gehienez 5 urtetakoa izanen da inolako komisio berezirik gabe. [illegible] ADSL, RDSI, kable modem edo antzeko lineak ezarri nahi dituztenek 15.000 pezetako dirulaguntza eskatzeko aukera izanen dute. Linea hauek programan parte hartzek duten operadorak ezarriko dituzte eta subentzioa jasotzeko eskaera operadora hauen bitartez eginen da.

Nafarroako Gobernuak 150 milioitako aurrekontua onartu du "e-hogar" programarako. Laguntza hauek eskatzeko saltokietan izanen dituzten orriak bete beharko dira. Kontsumitzaileak edozein ordenagailu mota erosi ahal izanen du eta internet konexioa izatea beharrezkoa izanen da. Nafarroan teknologia berriak eta informatika bultzau nahi dira programa honekin. Etxe bakoitzeko ordenagailu bakarra erosteko aukera izanen da. Kontutan hartu behar da saltokiak "e-hogar" programari atxekiak egon behar dutela dirulaguntzak eskatzeko. Banketxeek gehienez 200.000 pezetako kreditua emanen dute.

Programa hau jadanik Euskal Autonomi Elkartean burutzen ari da eta arrakasta handia izan du. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak Nafarroako Gobernuko web orrian www.cfnavarra.es/e-hogar helbidean aurkituko du.

*Gobernuak 25.000 pezetako dirulaguntza emanen dio, internet duen ordenagailua erosten duenari.*

## LIBURUAK



*Euskaldunak eta ondasunak*

**Patxi Juaristi**

PAMIELA

Patxi Juaristik idatzitako saio honetan euskaldunek ohituraz ondasunekiko izan dituzten harremanen berri ematen du. Harreman hauek gidatu dituen gizarte filosofia aurkezten da. Euskaldunek baliotsuak eta urriak izan diren gauzekiko (etxea, etxabereak eta elikagaiak bereziki) harremanak antolatzeko izan dituzten ohitura, araudi eta ikuspuntuak hobeki ezagutu eta ulertzea izan da Patxi Juaristiren nahia lan honetan. Liburuaren orrialdeetan egiten den ekarri garrantzitsuena da gai honi buruzko ezagutza handitzeko bide berri bat jorratzea. Euskaldunen ondasunekiko harremanak aztertu dituzten autoreen artean desadostasun eta kontraesanak nabarmentzen direla ikusi ondoren, hizkuntzan oinarritutako ikerketa burutu du Patxi Juaristik. Aurkezten dituen ondorioak, hizkuntzaren azterketan, zehazki euskal esaera zaharren azterketan oinarritzen dira.

# AGENDA egunez egun

### BESTAK

**ELIZONDO**

**Uztailaren 24tik 29ra** Santiago bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

**ELGORRIAGA**

**Uztailaren 25etik 29ra** Santiago bestak. Xehetasunak 17. orrian.

**ITUREN**

**Uztailaren 13etik 17ra** Xehetasunak 16. orrian.

**ARANO**

**Uztailaren 21etik 26ra** Santiago, San Joakin eta Santa Ana jaiak. Xehetasunak 19. orrian.

**ALKAIAGA**

**Uztailaren 29an.** Santiago bestak. Xehetasunak 10. orrian.

### OSPAKIZUNAK

**ELIZONDO**

**Uztailaren 26an** aitatxi-amatxien besta ospatuko da. Bazkaria Hotel Baztanen izanen da.

### BIDAIAK

**LESAKA**

**Udazkena arte** Elisabet mendia zumarragarraren margolanak ikusgai Etxalarko Herriko Ostatuan.

### GUARDIAKO BOTIKAK

**Uztailaren 9tik 15era**

Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

**Uztailaren 16tik 22ra**

Bera, Elizondo (Iturralde), Ituren, Leitza eta Goizueta.

**Uztailaren 23tik 29ra**

Lesaka, Narbarte, Irurita eta Goizueta.

# MERKATU TTIKI[A]

**ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA**

## 00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argi... 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008.0080 53.0200015293 kontuan... justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

**...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!**


**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak


### ETXEBIZITZAK

#### 101 SALDU

**LESAKA.** Antolu karrikan 85 m²ko pisua salgai. ☎ 948 637 333 (eguerdietan eta 19etatik aitzinera).

**BERA.** 79 m²ko pisu mobleztatua salgai. ☎ 948 630 943.

**BERA.** Pisua salgai Legia karrikako 53. zenbakian 3. pisuan. ☎ 696 753 366.

**DONEZTEBE.** Pisua garajearekin salgai Elizagibela auzoan. ☎ 600 902 740.

**ERRATZU.** 100 m²ko pisua salgai. Mobleztatua, 3 logela, sukaldea, egongela, bainua eta trasteroa. 11 milioi pta. ☎ 649 932 297.

**BEINTZA-LABAIEN.** Baserria salgai bere lurrekin. Etxeak 2 solairu ditu (130 m² bakoitzak). ☎ 948 450 039.

**ERRATZU.** Pisu ederra salgai. Mobleztatua, trastero eder batekin eta bista paregabeak. ☎ 629 322 998 (arratsaldeetan).

**IRUÑEA.** Txantrea auzoan pisua salgai, oso egoera onean. Mobleztatua. Bizitzen jartzeko prest. ☎ 948 510 012 edo 617 808 848.

**ELIZONDO.** Alduides karrikan pisua salgai. Bista ona eta eguzkitsua. Egoera onean. ☎ 948 452 125 (gauez).

**IGANTZI.** Pisua salgai, 90 m² hiru logela, jangela, komuna eta sukaldea. ☎ 687 950 373

**Tele inmobiliaria**
Eskaera handiagatik bordak, baserriak, etxeak, pisuak eta lur-eremuak behar dira.
✆ 948 630 601

**ADOS**
- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
✆ 948 451 841
607 978 656

### ETXEBIZITZAK

#### 104 Errentan hartu

Pertsona bat eskaintzen da baserria edo borda zaintzeko bizitzen jartzearen truke. Gasnagilea naiz eta furgoneta handia dut. Ingeles itzultzailea naiz. Euskaraz ere zerbait badakit. ☎ 659 733 391 (Alan).

Lesakan pisua hartuko nuke errentan, 3 hilabetetik 6 hilabetetara. ☎ 948 177 573 (gaueko 9etan)

### ETXEBIZITZAK

#### 105 Etxe konpartituak

**BURLATA.** Neska bat behar da pisua osatzeko. ☎ 948 450 578 edo 679 877 229.

### GARAJEAK

#### 107 Saldu

**DONEZTEBE.** Aparanen 75 m²ko nabe pabiloia salgai, 55 m²ko bigarren plantarekin. ☎ 948 450 906.

### LURRAK/ORUBEAK

#### 112 Saldu

**SUNBILLA.** H... guruan lur-eremu sa... herritik hurbil. ☎ 94... 135.

### LANA

#### 301 Eskariak

**WEB ORRIALDE[AK] EGITEN DI[RA]**
Eskaintz[a] zerrendat[...]
☎ 607 84 30 5[...]
szeraten@jet.es

**ARANTZA ZVRGINDEGI[A]**
Jose Miguel Erra[...]
Klase guztiet[ako]
zurgin lan[ak]
☎ 948 ...

**Alicia T. Erro...**
**OFIZIALE GUZTIA[K]**
**SERVI-LAN.**
Elizagibela, 5
Tel. 94845...

**ADOS**

**SUNBILLA:**

**14 etxe elkar atxikiak**

**14 etxebizitza modalitate librean**
106 m² + 50 m² garaje + lur zatia = 23.900.000 Pta.



Hasiak gara erreserbak egiten.

Argibideak:
✆ 948 451 841
607 978 656

**BERAko UDAL[A]**
AYUNTAMIENTO DE BER[A]

**U.C.14.2ko URBANIZAZIO PROIEKTUA HASIERA BATEZ ONESTEA: J.A. PAGOLA eta J.Mª IRAZOQUI**

2001eko ekainaren 7an Gobernu Batzordeak egin... bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zen:

1. JOSE A. PAGOLAk eta JOSE Mª IRAZOQUIk ap... keztutako Urbanizazio Proiektua, hasiera batez ona... tzea.
2. Aipatu Urbanizazio Proiektua, Foru Komunitate... gehien zabaltzen den egunkarietako batean, gaine... nez, Nafarroako Aldizkarian eta Iragarki Taulan ala... aurretik argitaratua, 15 eguneko epean jendaurre... jartzea.
3. Erabaki hau interesatuei bidaltzea.

Bera, 2001.06.15
ALKATE-ORDEA
Javier Leiza Oteiza

...eskaintzen da ...haurrak zain- ...etxekolanak egin edo ...lanetarako. ☎ 699 ...(Joso Ingoien) arra- ...tik urte.

...euskaldun batek os- ...lan egingo luke edo- ...bestetan. ☎ 943 ...(Mader).

...tailerrekan lan egin ...luke, umeak zain- ...etxeak garbitzen edo ... ☎ 948 615 035

...gazte batek lan egi- ...haurrak zaintzen ...partikularrak ema- ... ☎ 948 631 037 - 669 ... (arratsaldeetan).

...batek **etxea gar-** ...egingo luke. Kon-

fiantzakoa. ☎ 948 635 231

Uztaila eta abuztuan **klase partikularrak** emanen nituzke Beran. ☎ 948 631 499.

## LANA
### 302 Eskaintzak

Frantses pixka bat dakien **neska** behar da uztaila eta abuztuan lan egiteko. ☎ 948 630 794.

Donostian urritik aurrera, haurrak zaindu eta etxekolanak egiteko **emakumea** behar da. ☎ 943 450 887

Iruñeako enpresa batean **dokumentalista** bat behar da. MARC formatuan esperientzia duena edo ezagutzen duena. ABSYS katalogazio automatizatuan kudeaketa sistema ezagutu behar du. Informazio gehiago BITARTEn ☎ 619 829 289 (Betisa Anda)


LODITASUNA
EDAN ETA ARINDU!
Zure pisua kontrolatzeko janari bazterra gabe
☎ 948 13 11 36


Donostiako moto tailerrean lan egiteko **mekanikoa** behar da. Esperientzia kontuan hartuko da. ☎ 943 280 457 (Iñaki).

Beran bizi den **emakumea** behar da, goizez etxeko lanak egin eta 5 urtetako haurmen lan batzuetaz arduratzeko. ☎ 948 631 185 Eguerditan 1etik 3etara edo gaueko 9etatik aitzin.

Denboraldi berrirako **ostatuko zerbitzaria** behar da asteburuetan lan egiteko. ☎ 948 450 028.

Donostian **neska interna** bat behar da uztailaren 15etik abuztuaren 15era. Soldata 130.000 pezeta. ☎ 943 427 967 (gaueko 8etatik 9etara).

## MOTORRAK
### 501 Salerosketak

**Fiat Tempra** 1.9 TD salgai, NA-AK. ☎ 948 637 235.

**Kawasaki KX** 250 salgai. Egoera onean. ☎ 652 754480.


GANIX
Tailerrak
☎ 948 630... • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

BOAN
TAILERRA
CITROEN
AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

MENDAUR MOTOR
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
C15, Nissan Patrol,
Galloper 3 ate, Clio D.
SUZUKIAK ETA VITARAK ALKERAN





AMEZTIA OSTATUAK
Fanta-k
MOTO HAU OPARITZEN DIZUTE
☎ 948 450 028
Zure eskaria telefonoz ere egin eta zozketarako txartelak eraman itzazu

Honako hauek kontsumitzeagatik:

| | | |
|---|---|---|
| Fanta | 1 | TXARTEL 1 |
| Fanta | 1 eta pintxoa | 2 TXARTEL |
| Fanta | 1 eta bokata | 2 TXARTEL |
| Fanta | 1 eta sandwicha | 2 TXARTEL |

LAGUNTZAILEA:
J.L. San Miguel Tailerra
Piaggio agentzia Donezteben
...TAILA, ABUZTUA ETA IRAILEAN BALIAGARRIA

NABARRAtik Nafarroa osorako euskal aldizkaria




ZURE HARPIDETZA
DI-DA BATEAN

(00 34) 948 22 71 25

Izen abizenak.................................... Nortasun agiria....................................
Helbidea.................................... Telefonoa....................................
Herria / Hiria.................................... KP .................. Herrialdea....................................
Kontu zenbakia (20 zenbaki).................................... Banketxea....................................

SINADURA

5.000 pzta./ 200 libera
urte osoa (12 aldizkari)

Igorri kupoi hau helbide honetara: San Frantzisko 19, behea · 31001 IRUÑEA (Nafarroa) · Tel. (00 34) 948 22 71 25 · e-posta: nabarra@nabarreria.com




CAN
Besta Zoriontsuak!
NAFARROAKO KUTXA